Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1788

AGINDUA, 2009ko martxoaren 11koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuan araututako diru-laguntzen zenbatekoak eguneratzen dituena.

Abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuak (2003ko abenduaren 31ko EHAA) Euskal Lan zerbitzua / Langai izendapenaz, lan-agentziaren eginkizunetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak sustatzen dituen lan-merkatuko bitartekotza-ekintzen antolamendua eta garapena arautu zituen. Dekretu horren arau-aurrekari hurbilak Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 1996ko ekainaren 26ko eta 1998ko martxoaren 30eko Aginduak izan ziren.

326/2003 Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenak ahalmena ematen dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dekretu horretan ezarritako diru-laguntzen zenbatekoa eguneratzeko.

326/2003 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoak 2006ko uztailaren 27ko Aginduak (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarenak, abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuan araututako diru-laguntzen zenbatekoak eguneratzen dituenak) eguneratu zituen, eta dekretu horretan adierazitako zenbatekoak ehuneko hamar gehitu zituen.

Orduz geroztik, bi urte baino gehiago igaro dira, eta, Kontsumo Prezioen Indizeak izan duen igoera konpentsatzeko, abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuan aurreikusitako zenbatekoak (2006ko uztailaren 27ko Aginduak eguneratuak) ehuneko bost gehituko dira agindu honen bidez.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuko honako diru-laguntza hauen zenbatekoak eguneratzea:

– Enplegu-eskaintza atzemateko, erregistratzeko eta kudeatzeko ekintzetarako diru-laguntzak, adierazitako dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitakoak:

1.– 6. artikuluan kontuan hartutako eskaintzak atzemateko eta erregistratzeko ekintzak egiteagatik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eskaintza bakoitzeko 6,93 euroko diru-laguntza emango dio eskaintza erregistratzen duen zentro laguntzaileari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1788

ORDEN de 11 de marzo de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se actualizan las cuantías de las subvenciones reguladas en el Decreto 326/2003, de 23 de diciembre.

El Decreto 326/2003, de 23 de diciembre (BOPV de 31 de diciembre de 2003) reguló la organización y desarrollo de las acciones de intermediación en el mercado de trabajo que promueve el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en funciones de agencia de colocación bajo la denominación de Servicio Vasco de Colocación / Langai. Los antecedentes normativos inmediatos de este Decreto fueron las Órdenes del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social de 26 de junio de 1996 y de 30 de marzo de 1998.

La disposición final segunda del Decreto 326/2003 faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para actualizar el importe de las subvenciones establecidas en el mismo Decreto.

Las cuantías de las subvenciones previstas en el Decreto 326/2003 fueron actualizadas por la Orden de 27 de julio de 2006, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se actualizan las cuantías de las subvenciones reguladas en el Decreto 326/2003, de 23 de diciembre incrementando las cantidades indicadas en dicho Decreto en un diez por ciento.

Habiendo transcurrido más de dos años desde entonces, en orden a compensar el aumento del Índice de Precios al Consumo experimentado, mediante esta Orden se van a incrementar en un cinco por ciento las cantidades previstas en el Decreto 326/2003, de 23 de diciembre actualizadas por la Orden de 27 de julio de 2006.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

Artículo único.– Actualizar las cuantías de las subvenciones del Decreto 326/2003 de 23 de diciembre siguientes:

– Subvenciones por acciones de captación, registro y gestión de la oferta de empleo, previstas en el artículo 17 del Decreto citado:

1.– Por la realización de las acciones de captación y registro de las ofertas contempladas en el artículo 6, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social subvencionará al centro colaborador que registre la oferta con una cantidad de 6,93 euros por cada oferta.

2.– 7.1 artikuluaren a) eta b) ekintzak egiteagatik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eskaintza bakoitzeko 17,33 euroko diru-laguntza emango dio eskaintza burutzen duen zentro laguntzaileari.

3.– 7.1 artikuluaren d) ekintza egiteagatik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eskaintza bakoitzeko 10,40 euroko diru-laguntza emango dio eskaintza burutzen duen zentro laguntzaileari.

4.– Zentroak horrez gain 7.1.c) artikuluan kontuan hartutako prestasuna egiaztatzen badu (8.4 artikuluan aurreikusitako kasuan), Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ekintza hori egiten den eskaintza bakoitzeko 24,26 euroko diru-laguntza gehigarria emango dio.

– Enplegu-eskariaren egoerei eusteko eta egoera horiek kudeatzeko ekintzetarako diru-laguntzak, adierazitako Dekretuaren 18.1 artikuluan aurreikusitakoak:

1.– Enplegu-eskariaren egoerei eusteko eta egoera horiek kudeatzeko ekintzak egiteagatik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak honako diru-laguntza hauek emango dizkie zentro laguntzaileei:

a) Hasierako elkarrizketa egiteagatik, elkarrizketa egin duen pertsonak elkarrizketa bera Langai / Euskal Lan Zerbitzuaren informazio-zerbitzuan erregistratu duenean: 24,26 euro.

b) Eskariari eusteagatik, hasierako elkarrizketa ez denean: 2,77 euro. Diruz laguntzeko modukoak izango dira eskatutako lanen, prestakuntzaren (arautuaren, lanerakoaren eta/edo osagarriaren) eta/edo eskatzailearen esperientziaren gehikuntzak edo ezabapenak, zentroak egiten dituenak (ez, ordea, eskatzaileak Internet bidez egiten dituenak eta automatikoak). Nolanahi ere, hilabete natural berean eta eskari beragatik, fakturazio bateko muga izango da, eta hilabete natural bakoitzean fakturatzeko moduko azken aldaketa egin duen zentroari ordainduko zaio. Eskatutako lanen gehikuntzen edo ezabapenen kasuan, aldaketak fakturatzeko modukoak izan daitezen, elkarrizketa egiten duen pertsonak erregistratu beharko ditu.

c) Hasierako inskripzioagatik: 3,47 euro.

d) Eskariaren administrazio-egoeraren edo haren arrazoiaren aldaketa bakoitzagatik: 1,39 euro.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoen eguneratzeak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako ekintzei aplikatuko zaizkie, atzeraeraginezko ondorioekin.

2.– Por la realización de las acciones a) y b) del artículo 7.1, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social subvencionará al centro colaborador que concluya la oferta con una cantidad de 17,33 euros por cada oferta.

3.– Por la realización de la acción d) del artículo 7.1, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social subvencionará al centro colaborador que concluya la oferta con una cantidad de 10,40 euros por cada oferta.

4.– En el caso de que el centro realice, además, la comprobación de disponibilidad contemplada en el artículo 7.1.c), en el supuesto previsto en el artículo 8.4, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social subvencionará dicha acción con una cantidad adicional de 24,26 euros por cada oferta en la que se realice dicha acción.

– Subvenciones por acciones de mantenimiento y de gestión de situaciones de la demanda de empleo, previstas en el artículo 18.1 del Decreto citado:

1.– Por la realización de las acciones de mantenimiento y de gestión de situaciones de la demanda de empleo, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social subvencionará a los centros colaboradores con las siguientes cantidades:

a) Por la realización de la entrevista inicial cuando ésta haya sido registrada en el sistema de información de Servicio Vasco de Colocación / Langai por la persona que ha realizado la entrevista: 24,26 euros.

b) Por el mantenimiento de la demanda, cuando no se trate de la entrevista inicial: 2,77 euros. Serán subvencionables las adiciones o eliminaciones de ocupaciones solicitadas, formación (reglada, ocupacional y/o complementaria) y/o experiencia de la persona demandante que realice el centro (no las que haga la persona demandante por Internet ni las automáticas), con el límite de una facturación sobre la misma demanda en el mismo mes natural, abonándose al centro que haya realizado la última modificación facturable en cada mes natural. En el caso de adiciones o eliminaciones de ocupaciones solicitadas, las modificaciones, para que tengan el carácter de facturables, deberán ser registradas por la persona que realice la correspondiente entrevista.

c) Por inscripción inicial: 3,47 euros.

d) Por cada una de las modificaciones de situación administrativa de la demanda o de su causa: 1,39 euros.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las actualizaciones de las cuantías de subvención previstas en la presente Orden serán de aplicación, con carácter retroactivo, a las acciones realizadas desde el día 1 de enero de 2009.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean; edota, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, Agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 11.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de marzo de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.